

Margaret Thatcher kanpainan sartu da Majorri laguntzeko

LONDRES


Erresuma Batuko Alderdi Kontserbadoreak, Margaret Thatcher lehen ministro britainiar ohiarengana jo behar izan du hauteskunde kanpainarako, Alderdi Laboristaren indarra ahuldu nahian. Toriek laguntza eskatu behar izan diote 'Burdinazko Damari', nahiz eta 1990ean beraiek izan Thatcher boteretik kendu eta John Major lehen ministrorako hautatu zutenak.

Lehen ministro ohiak, ordea, ahaztuta dauka dagoeneko orduko gertaera hori, bere lankideen konfidantza galdu zueneko garai hori, eta gogor ekin dio John Majorren defentsan iragan asteburu honetatik. Thatcherrek Majorren hautagaitza «haginekin defendatzeko prest dagoela» adierazi zuen herenegun, kontserbadoreen kontraeraso kanpainari hasiera emanez. Orain arte, bai kanpainan baita inkestetan ere, laboristek aurre hartu diete toriei.

Major aldamenen zuela, eta buruzagi torien aurrean, Thatcher indarberrituta atera zen herenegun, kontserbadoreentzat laugarren garaipena eskatuz, Gobernu laborista osatzea ekiditeko. «Alderdi Laborista oraindik sozialista da eta hiritarren bizitzetan kontrol handiagoa ezarri nahi du» adierazi zuen lehen ministro ohiak.

Majorrek, berriz, esan zuen bere Gobernuak aurrikusten duen zerga ezarpenen murrizketak «talentu eta kualifikazio profesionaldunei pizgarriak aurkezten dizkiela, laboristek aurkeztutako aurrekontu alternatiboek, aldiz, klase profesionali kalte besterik ez liekete egingo».

Aurrekontuen borrokan, Neil Kinnock-en Alderdi Laboristak



John Major.

ere gogor ekin dio, eta torien aurrekontuek gizarte klaseen arteko alde handitu besterik ez luketela egingo argudiatzen dute.

LABORISTEN BELDUR MALVINETAN Malvina irletan, berriz, beldur dira datorren apirilko hauteskundeetan laboristen balizko garaipen batek Atlantiko hegoaldeko artxipi-lago honen subiranotasun britainiarra zalantzan jarriko duen, atzo 'Daily Mail' egunkariak argitaratu zuenez.

Egunkari britainiarraren arabera, Malvinetako herritarrek John Majorren administrazio kontserbadoreak boterean segi dezala nahi dute, Gobernu tori batek britainiarrak izaten jarraitzeko duten guraria errespetatuko duela eritzi bait diote. Beldur dira, ordea, Gobernu laborista bat Argentinarekin elkarrizketatzen hasiko den Malvinen etorkizuna eztabaidatzeko. Horregatik, Malvinetako britainiarrak gogor jarri dira eta adierazi dute beraiek kontutuan hartu gabe ez dietela laboristei negoziatzen utziko.



Militar thailandiarrek militarren aldeko alderdiei eman zieten botoa.

Thailandiako hauteskundeetan militarren ingurukoak garaile

Gehiengo garbirik ez izateak arazoak ekarriko ditu Gobernu osatzeko

Armadaren onespenu duten alderdiek lortu zuten botoen gehiengoa herenegun Thailandian egin ziren hauteskundeetan. 1991ko apirilean militarrek emaniko Estatu kolpeaz geroztik egin den lehen bozketa izan da hau.

M. OIARTZABAL / DONOSTIA

Militarren aldeko hiru alderdi nabarmendu ziren, Legebiltzarra osatzeko eserlekuen % 51 eskuratu bait zituzten. Aldiz, militarren eragin gutxiago jasotzen duten alderdi demokratiko nagusiak % 44en inguruan egongo lirateke. Ez dago gehiengo argirik lortu duen alderdirik eta Lege-

biltzarrean ordezkariak izatea lortu duten alderdi ezberdinek Gobernu berria osatzeko hizketaldiak hasi beharko dituzte.

Militarren aldeko alderdi horietako bat 1991ko Estatu kolpeak agintetik kendu zuen Chatichai Choonhavan lehen ministro ohiarena da. Hauek bigarren indarra izan dira eta 75 eskainu lortu dituzte. Samaki Tam lehen alderdiak, berriz, 80 lortu ditu. Legebiltzarra osatzeko 360 eserleku zeuden jokoan igandeko hauteskundeetan.

ESPERO ZIREN EMAITZAK Emaizta hauek ikusita, azken urtean agintean egonden Junta Militarrek bere helburuak lortu dituela esan daiteke. Botoemalen joerak bere indarra nolabait legitimatzeaz gain, era honetan Gobernu berria osatzekoan militarren partaidetza

bermatuta dago. Baina egoera hau ez da inolaz ere ezusteko bat, hauteskundeak aurrez oso ondo prestatu bait zituzten militarrek. Alderdi indartsuenak bereganatzeaz gain, Senatuko partaide guztiak Juntak hautatuko ditu.

Gainera, Thailandiako alderdi demokratek Juntak alderdi irabazleei gobernuburu inposatuko dietela uste dute. Izan ere, militarrek argi eta garbi utzi zuten irabazleak akordiora iristea zaila izango zela, gehiengo garbirik ez zelako lortuko. Hori konpontzeko egokiena jeneral bat gobernuburu izendatzea zela zioten Juntakoek. Aukera hori dela eta, kezkatuta agertu dira indar demokratikoak. Herriak aukeratu ez duen gobernuburu bat izendatzea onartezina dela pentsatzeaz gain, neurri horrek ondorio larriak ekarriko lituzkeela uste dute.

Heriotz zigorra berrezartzeak haserrea sortu du Hego Afrikan

JOHANESBURG

Hego Afrikako Gobernuak kritika gogorak jaso zituen atzo, herenegun heriotz zigorra berrezartzeko erabakia hartu ondoren, eta hamazazpi zigorturen exekuzioa iragarri eta gero. Kritika guztiak giza eskubideen aldeko erakundeek egin zituen Frederik De Klerk-en Gobernuari.

Herenegun gauean eman zuen Justizia Ministeritza hegoafrikarrak hamazazpi kondenaturen berehalako exekuzioen berri, «ezin izan bait zaie zigorrik barkatu, oso delitu larriak egin bait zituzten». 1989ko azarotik Hego Afrikan inor exekutatuta ez badute ere, 1990eko uztailan indargabetu zen behin-behinean heriotz zigorra.

Jan Van Rooyen katedrati-

koa, Heriotz Zigorraren Aboliziorako Elkartearen arabera, exekuzio gehiago egiteak «Hego Afrikako etorkizun demokratikorako egiten ari diren elkarrizketetan eragin negatiboa izan dezake». Elkarrizketa hauen barnean dauden talde batzuek, Afrikako Kongresu Nazionalak besteak beste, puntu nagusietariko bat gisa heriotz zigorra indargetzea aipatzen dutela gogorazi ondoren, Van Rooyenek eritzi zion Gobernuaren jarrera hau elkarrizketetan agertutakoaren gutzit aurkakoa dela.

Mureinik, Wits Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko dekanoren arabera, berriz, De Klerken Gobernuak «traizioa egin dio iragan martxoaren 17an bakearen aldeko botoa eman zuen hauteslekoaren gehiengoari.



HOGEI pertsona hil ziren New Yorken herenegun gauean izaniko hegazkin istripuan eta beste hiru lagun galdu, USAIR konpainiako hegazkin batek aieratze eteteko saiaildia egin zuenean. New Yorkëko aireportutik irten behar zuen Fokker 28 hegazkinak bi orduz atzeratu zuen hegaldia, zegoen elurak aieratzea galeratzen zuelako.

Gerora, ordea, aieratzea erabaki eta lurra utzi zuen unean, pilotuak berriro lurreratzea erabaki zuen eguraldiak okerrera egin zuela ohartzekoan. Horrek eragin zuen istripua, hegazkina lurreratu zenean errebotatu eta su hartu bait zuen. Argazkian salbamenduko taldeak ageri dira galdutako lagun bilatu. Guztira 51 lagun zihoazen hegazkinean.